

# BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure katea pribatua izango da hortaz, diru kopuru bat ordaindu beharko dute hilean kate hau ikusi nahi badute. Telebista izango da bitartekari nagusia baina horrez gain mobil edo tabletean aplikazio bat sortuko dugu, non aste osoko galderak agertuko diren. Joku moduko bat izango da eta astean gertatu diren partiden edo elkarrizketen galderak egingo ditugu. Astero kirolari batek elkarrizketara produktu bat ekarriko du eta produktu hori izango da irabazleak izango duen saria. Aplikazio honetan taldeak egin ahal izango dira partaideen artean. Taldeak sortuz haien artean lehiatuko dira astean zehar. Horrela gure kanala erakargarriagoa izango da ikusleentzat. Beraiek kanal honen parte sentiaraziko ditugu. Aplikazio hau plataforma guztietan egongo da eta hortaz edozeinek eduki ahal izango du.



Horrez gain, webgunea sortuko dugunez norbaitek zerbait galdu badu edo berriro ikusi nahi badu bertan ikusi ahal izango du "nahieran". Egindako elkarriketa guztiak igoko ditugulako. Sare sozialak ere izango ditugu adibidez: twitter, instagram, facebook... horrela ikusleak egunean informazioa jasoko dute eta informazio gehigarriak ere azalduko dira.

Iragarki bat sortuko dugu gure kanalarena beste kanaletan ager dadin eta horrela jendeak ikus dezan gure kanala. Iragarki honetan, gainera ikusiko da gure kanala, kirolari buruzkoa izango dela eta emakume eta gizonezkoak izango direla protagonistak.

Gainera, bazkide izateko aukera izango dute horretarako txartel bat sortuko dugu eta ikusleak kirol desberdinak ikusteko deskontuak izango dituzte eta kirol dendetan gauzak erosteko beherapena ere izango dute. Txartel hau eskuratzeko diru kantitate bat ordaindu beharko dute hilean eta bazkide izateko gure webgunean bazkide saila egongo da.